



Espainiako Medikuntza Fakultateetako Familia-Medikuntza Babeseko Katedrek eta Familia-Medikuntzako Akademiak, EE/332/2008 Agindua beteaz, adostutakoaren Dokumentua. 2009ko urtarrila.

Familia-Medikuntzako Katedra hauexek:

Βαρτσελόνακo NOVARTIS Katedra: Xavier Mundet Jn. eta Carlos Martín Jn.

Μαδριλό NOVARTIS Katedra: Ángel Otero Jn., Luis García Olmos Jn.,
Augusto Blanco Jn. eta Antonio de Lorenzo Cáceres Jn.

Ζαραγοζακo NOVARTIS Katedra: Antonio Monreal Jn.

Αλαχαντεκo Lilly Katedra (UMH): Domingo Orozco Jn. eta Vicente Gil Jn.

Αλχάλα δε Ηεναρσεκo SEMERGEN Katedra: Ana de Santiago And. eta Federico Pérez Agudo
Jn.

Βαδαφοζεκo SEMERGEN Katedra: Félix Suárez Jn. eta Francisco Buitrago Jn.

Γραναδακo SEMERGEN Katedra: Jose M^a Peinado Jn. eta Juan Sergio
Fernandez Jn.

Σαντιαγο δε Χομποστελακo SEMG Katedra: José Antonio Torre
Carballada Jn. eta M^a Pilar Rodríguez Ledo And.

Ζαραγοζακo SEMG-PFIZER Katedra: José Manuel Cucalón Jn. eta Pedro
Cía Gómez Jn.

José Hernández Jn., Santanderreko SEMERGEN hurrengo Katedra baten Zuzendari gisa.

Espainiako Familia-Medikuntza Akademia edo semFYC-etik:

Verónica Casado And. eta Pablo Bonal Jn.

Iragan abenduaren 16an, Unibertsitateko Familia-Medikuntzako Katedrak bildu ziren Medikuntzako Gradu berrirako heziketa-edukiak zehazteko helburuarekin.

Adituen taldeak egindako lanari esker, Familia-Medikuntza irakasgaia diseinatu zen, EE/332/2008 ECTS Aginduekin bat datorrena, eta ondorengo izenburua duen dokumentuan aurkeztu zena xehetasun osoz:

“FAMILIA-MEDIKUNTZA IRAKASGAIAREN GAITASUNAK, METODOLOGIA ETA HORIEK EBALUATZEKO SISTEMAK” (“COMPETENCIAS, CONTENIDOS, METODOLOGÍA Y SISTEMAS DE EVALUACIÓN DE LA ASIGNATURA MEDICINA DE FAMILIA”). Iragan urtarrilaren 21ean zabaldu zen dokumentua.

Bilera horretan, proposaturiko irakasgaia kontuan hartu gabe, irakasgaien integritasunaren eta Familia-Medikuntzak beste hainbat irakasgai edo arloekin batera parte hartuko duen irakasgai zehiarrak martxan jartzeak ikasleek medikuntzan jarduteko beharrezkoak dituzten gaitasunak barneratzearen garrantzia azpimarratu zuten.

Testuinguru horretan, otsailaren 13ko EE/332/2008 Aginduek arautzen duen praktika gidatuen modulua Medikuntzako programa berriak hedatu beharko luketen ikasketen integritasun helburu horren adibidea da.

Adituen Taldeak egindako lanari esker, aipaturiko Aginduan bildutako eskakizunak betetzen dituzten **Osasun Lehen Arretako Zentroetan egindako Praktika Gidatuen**, eta beste eremuetan ere egingo diren praktiken ebaluaziorako sistema eta haren edukiak diseinatu ziren.

1 irudian, praktika gidatu hauentzat identifikatu eta gehitu diren gaitasunak bildu dira eta, hurrengo tauletan, kendu diren gaitasunei dagozkien edukiak eta ebaluazio-sistemak, ordea.

MEDIKUNTZA GRADUA	
IZENA	PRAKTIKA GIDATUAK OSASUN ZENTROETAN
IZAERA	NAHITAEZKOA
GAITASUNAK EE/332/2008 AGINDUAN bildu diren bezala, zeinari praktika gidatuak dagozkion	Praktika aurre-profesionalak, klinika birakari independente gisa eta gaitasunen azken ebaluazioarekin, Osasun Zentroetan, Ospitaletan eta arreta zentroetan, eta balio profesionalak, arreta komunikazioko gaitasunak, arrazonomendu klinikoa, kudeaketa klinikoa eta irizpide kritikoa, eta baita Medikuntza, Kirurgia, Obstetrizia eta Ginekologia, Pediatria, Psikiatria eta beste arlo klinikoetan nagusi diren osasun arazoei erantzuteko gaitasunak ere barneratuko dituztenak.
ECTS	9 eta 12 bitartean

3.

PRAKTIKA GIDATUAK OSASUN ZENTROETAN

1. irudia Praktika Gi

ion gaitasunak.

4. I FHEN MAII AKO ARRETA KO KASIIEN KUDEAKETA

1.

PREBENTZIOA ETA SUSTAPENA.

2.

KOMUNIKAZIOA ETA ETIKA

ERABAKI KLINIKOAK

1 TAULA

1-4 Taulak Praktika gidatua osasun zentroetan modulatik atera diren gaitasunak.

- Osasuna sustatzeko eta osasunaren inguruan hezteko arloak baloratu. Gaixoan, haren familia eta herrialdean gaixotasun garrantzitsuenen inguruan norberak bere burua zaintzea sustatu.
- Familia-Medikuntzako Kontsultan Prebentzio Klinikoko jarduerak zuzentzeko dagoen frogarik argienari onura ateratzen jakin.
 - Gaixo bakoitza Osasun Sistemarekin harremanetan jartzen den bakoitzean haren sustapena, tratamendua eta osatzea bateratzen jakin.

2 TAULA

- Anamnesi osoa egin, gaixoan oinarritutakoa eta hainbat gaixotasuni zuzendua, eta haren esanahia interpretatu.
- Azterketa fisikoa egin, aparatu eta sistema bakoitzeko, eta baita azterketa psikopatologikoa ere, eta haien esanahia interpretatu.
- Hainbat aparaturen eta sistemaren azterketa egin, Familia Medikuen kontsultan ikusitako koadro klinikoaren arabera.
- Gaixotasunaren eboluzio naturala zein den jakin eta hark eremu soziofamiliarrean izango dituen eraginak eta familia medikuen lanaren berezitasunak jakin.
- Gaixoan oinarritutako eta arazoak konpontzean oinarritutako arrazonamendu klinikoa eta Lehen Mailako Arretako erabakien oinarriak eta ezaugarriak jakin.
- Tratatutako gaixotasun nagusiaren ezaugarriak ezagutu eta baita arrisku egoerenak eta larrialdienak osasun zentroetan.
- Familia medikuen kontsultan aurkeztu diren arazoaren erabaki klinikoari aurre egin: kardiobaskularrak, arnas-sistemakoak, digestio aparatukoak eta gibeletakoak, infekziozkoak, metabolikoak eta endokrinologikoak, jarrera eta harremanetakoak, buru-osasunekoak, nerbio-sistemakoak, odolekoak eta organo hematopoietikotakoak, azalekoak, kolpeen, istripuen eta intoxikazioen ondoriozkoak, giltzurrunetakoak eta gernu-bideetakoak, gihar-eskeletokoak, aurpegi-sudur-aho-eztarrikoak eta belarrietakoak, begietakoak, menpekotasuna eragin dezaketen jarrerarenak.
- Hainbat patologia dituen gaixoaren maneiuaren konplexutasuna nabarmendu, polifarmazia barne.
- Lehen mailako arreta abiapuntu hartuta, herrialdeko hainbat talderi emandako arreta eskaintzen jakin: haurra, nerabea, emakumea, heldua, langilea, agurea, immobilizatutako gaixoa eta terminala, heriotzaren aurrean, eta haren zaintzailea.
- Familia arriskua eta soziala duten egoeren aurrean, baztertuak dauden pertsonekin, familia indarkeriarekin, genero indarkeria, haurren aurkako indarkeria, agurearen aurkakoa, eskolan edo lanean indarkeria jasaten dutenekin arreta nolakoa izan beharko lukeen jakin.
- Familiari eta komunitateari heltzearen ezaugarriak eta horretarako dauden baliabideak ezagutu

- Φρογεταιν Οιναρριτυτακο Μεδικυντζα πρακτικαν φαρτζεκο βαλιαβιδε ηλεκτρονικου οι ονυρα ατερατζεν φακιν.

3 TAULA

- Balio profesionalak eta pertsonekin, gizartearekin, kalitatearen hobekuntzarekin, etikarekin eta heziketarekin konpromisoak ezagutu.
- Pertsonari, familiari eta komunitateari heltzeko dauden baliabide eta gaitasunak ezagutu eta maneiatu
- Elkarrizketa klinikoak maneiatu eta Familia Medikuek erabili ohi dituen elkarrizketa motak bereizten jakin (paternalista, teknikoak, etab.).
- Familia Medikuetan ohikoak diren kontsulta motak maneiatu (bakarrak, anitzak, shopping-center, etab.).
- Praktika profesionala gaixoaren autonomia, haren sinesmenak eta kultura errespetatuz burutzen jakin.

4 TAULA

- Gaixo baten ardura modu orokorrean (bere arazo guztien arteko loturak kontuan hartuz) eta bere bizitza osoan zehar hartzea zer den ulertu.
- Kudeaketa klinikoaren elementu praktikoak eta gaixoan oinarritutako elementu praktikoak jakin eta frogarik onenean oinarritutako medikuntza aplikatu kudeaketa klinikoko baliabide gisa.
- Taldeko lanaren oinarri teorikoak jakin. Lehen Mailako Arreta Taldeak antolatzeko oinarriak ezagutu eta kasuen kudeaketarako kontsultan eta etxean jarduteko antolaketa-ereduak ezagutu eta baloratu.
- Errezeta medikuek ongi betetzen jakin, gaixo bakoitzarentzat eta legearen arabera egokituta.
- Beste arreta-mailetara eramateko irizpideak ezagutu eta kontsulta aldatzeko txostenak eta dokumentuak idazten jakin. Osasun arreta mailen eta profesionalen arteko komunikaziorako informazio-sistemak jakin, eta haiek Lehen Mailako Arretako erabilera klinikoan duen erabilera ulertu.
- Lehen Mailako Arretan ohikoak diren informazio sistemak eta erregistroak erabiltzen jakin.

- Zerbitzu soziosanitarioen egitura eta funtzioak jakin eta komunitateko hiritarren prozesuan nola lagun dezaketen jakin.

GAITASUNAK	EDUKIAK
<p style="text-align: center;">5 Taula Praktika gidatuen gaitasunak, edukiak eta ebaluazio sistema</p> <p>1. Prebentzioa eta sustapena.</p> <p>2. Erabaki klinikoak</p> <p>3. Komunikazioa eta etika</p> <p>4. Lehen Mailako Arretako kasuen kudeaketa</p>	<ol style="list-style-type: none"> 1. Familia-Medikuntzan funtsezkoak diren elementuak, haien balio profesionalak 2. Azterketa fisikoa eta sistemak <ul style="list-style-type: none"> • Αδιεραζλε.ετα σιντομα γαγυσιεν εσωννηια Φαμιλια-Μεδικοντζαν. • Anamnesia eta azterketa fisikoa. 3. Diagnosi-frogen interpretazioa <ul style="list-style-type: none"> • Φαμιλια-Μεδικοντζαν σαρρι εγλτεν διρεν προβα οσαγαρριεν ιντερπρεταζιοα. • Φαμιλια-Μεδικοντζαν σαρρι εγλτεν διρεν προβεν αδιεραζλεακ, ιντερπρεταζιοα ετα ετεκινα. 4. Tratamendu farmalogikoari nola heldu <ul style="list-style-type: none"> • Pertsona eta arazoan oinarrituta erabakiak nola hartu. 5. Tresnak erabiltzeko gaitasuna: kirurgia txikia, benda funtzionalak, zainetako puntzioa, infiltrazioak. 6. Larrialdien maneia lehen mailako arretan 7. Egunerokoaren bioetika 8. Egoera zailak kontsultan 9. Arreta etxean 10. Metodoak (praktikoak) arazoak identifikatzeko 11. Arretako beste mailekin koordinazioa (txostenak, kontsulta aldaketak, beste medikuengana bidaltzeko irizpideak) 12. Informazio eta erregistro sistemen erabilera 13. Osasuna sustatzeko eta gaixotasuna ekiditeko neurriak barneratzea 14. Familia eta ingurunea osasun arazoan sorreran eta konpontzean 15. LMren arreta erabakien bioetika eta legea ezagutzea 16. Familia-Medikuaren lanaren berezitasunak: Klinika, ez-jakintasuna, osasun arazoak, nagusia zein den, sendagaiak, deribazioa, helbidea, taldeko lana berezi gabe 17. Gaixotasun ohikoenak praktikan nola maneiatu: diagnostia (anamnesia eta azterketa), pronostikoa eta tratamendua 18. Lehen Mailako Arretan egon daitezkeen egoera arriskutsuen identifikazioa 19. Baliabideak erabiltzeko gaitasuna (gaixoarekin eta familiarekin hitz egin, berri txarrak eman) 20. Burokraziaren kudeaketa 21. Osasun zentroetan egiten den ikerketaren ezaugarriak 22. Denboraren kudeaketa, arretaren antolakuntza 0. Norberak ikasi behar duena eta trebatzeko baliabideak identifikatu
<p>METODOLOGIA</p> <p>Praktika gidatuak: auto-ikasketa gidatua eta lanean ikastea.</p>	
<p>EBALUAZIO-SISTEMA</p> <p>Erantzun anitzeko testa, ikaslearen koadernoak, ECOE.</p>	

Terminoen glosarioa.

METODOLOGIA:

PRAKTIKA GIDATUAK: *Ikasleak Osasun Zentroetan egingo dituen jarduera profesionaletan trebatzeko xedea dute. Auto-ikasketa eta lanean ikastea hartzen ditu.*

AUTO-IKASKETA GIDATUA: *Ikasketa gidatuak egiteko banakako baliabideen erabilera eta ikasketa da.*

LANEAN IKASTEA: *Hark bakarrik ikasi ahal izateko, ikaslea benetako egoera baten aurrean jartzea da.*

EBALUAZIO SISTEMA:

KASU KLINIKOEN MINTEGIAK. *Ahozko hartu eta emanak egiteko taldeko lana, gai baten inguruan eztabaida bidez sakonduz eta taldearen artean aztertuz.*

ECOE: *Ebaluazio kliniko objektiboko eta egituratuko proba, Osasun Zentroan eguneroko praktika klinikoko baldintzetan edo kasu errealetan gertatzen diren antzerako kasuen bitartez egituratua..*

ERANTZUN ANITZEKO TEST. *Jakite mailak edo jarrerak ebaluatzeko xedea duen proba, non aurretik finkatutako hainbat aukeraren artean zuzena aukeratu beharra dagoen.*
